

TITULARRAK	ADIERAZLEAK	Azken datua	Δ Urte artekoa (%) <small>*aurreko aldia</small>	Azken datuaren data
<ul style="list-style-type: none"><li>Guztira, 21.533 langabe erregistratu dira urtarrilean.</li><li>Afiliatutako biztanleen kopuruak -% 1,1 egin du behera abenduarekin alderatuta, baina 6.058 enplegu gehiago daude urtebetean (% 3,2). Erregistratutako kontratuek -% 2,6 egin dute behera 2024ko urtarrilari dagokionez.</li><li>Txikizkako merkataritzako salmentek % 3,8 egin dute gora laugarren hiruhilekoan, eta urte osoan % 2,6. Saltoki handietan eta elikadura-kateetan urte arteko beherakada -% 0,3 izan da. Bestalde, zerbitzuetako salmentek % 3,4 egin dute gora urterik urte.</li><li>Urtetik urtera, halaber, ostatu-gauek (% 5,2) eta bidaiarien sarrerek egin dute gora (% 5,8). Atzerritik datozen sarrerak % 5,1 igo dira, eta estatutik datozenak % 6,1.</li><li>Erabilitako etxebizitzaren batez besteko prezioa % 6,7 igo da, eta etxebizitza berriena % 6,5 jaitsi da urte batetik bestera.</li><li>Bilboko aireportuak 365.944 bidaiari erregistratu ditu urtarrilean, 2024ko urtarrilean baino -% 3,8 gutxiago.</li><li>Bilboko Portuan 2,4 milioi tonako trafikoa erregistratu da urtarrilean, aurreko urteko hil berean baino -% 20,2 gutxiago.</li></ul>	<b>Lan-merkatua</b>			
	Afiliatuak (kop.)	196.814	-1,1*	Urt.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	21.533	2,2*	Urt.
	Erregistratutako kontratutak	11.176	-2,6	Urt.
	<b>Merkataritza</b>			
	Txikizkako merkataritza: salmenta-indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	122,8	3,8	IV. HH
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	103,3	-0,3	Urt.
	<b>Turismoa</b>			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	66.206	5,8	Urt.
	Ostatu-gauak (kop.)	120.365	5,2	Urt.
	<b>Ekonomia eta enpresa</b>			
	Zerbitzuak: salmenta-indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	132	3,4	2024ko 4HH
	Etxebizitza libre berria (€/m <sup>2</sup> )	3.733,09	-6,5	2024ko 4HH
	Etxebizitza erabilia (€/m <sup>2</sup> )	3.144,07	6,7	2024ko 4HH
	<b>Garraioa</b>			
	Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	365.944	-3,8	Urt.
	Salgaien itsas garraioa (milioi tona)	2,4	-20,2	Urt.
Hiriko garraioa eta metropoliko garraioa (milioi bidaiari)	125,9	5,2	2024	

DATU BAT

% 3,8

Txikizkako merkataritza-salmentak

## LAN-MERKATUA

### Erregistratutako langabezia

Urtarrilean 466 langabe gehiago erregistratu ziren, hau da, hiletik hilera % 2,2 gehiago, eta 21.533 langabe daude udalerrian.

Emakumeen eta gizonen artean langabezia igo egin da: % 2,7 eta % 1,6, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 316 emakume langabe gehiago eta 150 gizon langabe gehiago zeuden.

Adin-tarteei dagokienez, gazteen artean, % 7,3 igo da (135 langabe gehiago), 25 eta 44 urtekoen artean % 3,1 (234 gehiago) eta 45 urte edo gehiago dituztenen artean % 0,8 (97 gehiago).

Eraikuntzan izan ezik (-% 0,2 eta 3 langabe gutxiago), langabeziak gora egin du sektore guztietan: Zerbitzuetan +% 3,1 (458 gehiago), Industrian +% 0,3 (4 gehiago) eta Lehen Sektorean +% 2,5 (10 gehiago). Behera egin du langabezia egonda lehenengo enplegua bilatzen ari direnen artean (-% 0,1 eta 3 langabe gutxiago).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasa % 1,5 handitu da aurreko hilaren aldean. Zaragozan erregistratu da gorakadarik handiena: % 3,3. Bartzelonan eta Madrilan erregistratu dira gorakadarik txikienak: % 1,0 eta % 1,2, hurrenez hurren.

Euskal hiriburu taldean (G-3) erregistratutako langabeziak % 2,3 egin du gora. Langabeziak gora egin du Donostian (% 4,6), Gasteizen (% 1,8) eta Iruñean (% 1,6).

Langabeziak gora egin du EAEn (+% 1,84) eta lurraldeka: Araban % 1,58 egin du gora, Bizkaian % 1,89 eta Gipuzkoan % 1,91.

### Afiliatuak

Urtarrilaren amaieran Bilboko enpresetan 196.814 afiliatu zeuden, hau da, abenduan baino 2.267 enplegu gutxiago (% 1,1).

Araubideen arabera, Orokorrak 2.027 enplegu galdu ditu aurreko hilaren aldean, eta Langile Autonomoen Araubide Bereziak 133 afiliazio eta Etxeko langileenak 71 (-% 1,2, -% 0,6 eta -% 1,1 gutxiago, hurrenez hurren). Araubide berezietako (Nekazaritza eta Itsasoa) enpleguek ere behera egin dute 36 enplegutuan (-% 5,2).

Eraikuntzan baino ez du afiliazioak gora egin (+% 0,2, hau da, 16 enplegu gehiago). Industriak 4 enplegu galdu ditu (% 0,0), Zerbitzuek 2.247 afiliatu (-% 1,2) eta lehen sektoreak 32 (-% 13,4).

#### Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko  $\Delta$

<b>Urtarrila</b>	<b>21.533 pertsona</b>
	% 2,2 ▲
Emakumeak	% 2,7 ▲
Gizonak	% 1,6 ▲

#### Benchmarkina

Hilabete arteko  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	% 2,2 ▲
<b>G-5</b>	% 1,5 ▲
<b>G-3</b>	% 2,3 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

#### Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko  $\Delta$

<b>Urtarrila</b>	<b>196.814 pertsona</b>
	% 1,1 ▼
Araubide orokorra	% 1,2 ▼
Autonomoak	% 0,6 ▼
Etxeko Sistema Berezia	% 1,1 ▼
Beste batzuk	% 5,2 ▼

Zerbitzuetan, lau adarretan soilik areagotu da afiliazioa: Hezkuntza; Informazioa eta komunikazioak; Jarduera artistiko, aisialdiko eta entretenimendukoak, eta Administrazio Publikoa, hau da, 742, 61, 39 eta 34 afiliatu gehiago, hurrenez hurren.

**Urte artean** enpleguak % 3,2ko gorakada izan du, hau da, 6.058 afiliatu gehiago.

Araubide Orokorra % 3,8 handitu da eta Autonomoena % 0,7. Etxekoa -% 3,5 eta berezietakoak (Nekazaritza eta Itsasoa) -% 6,8.

Sektoreen arabera, zerbitzuetan 5.874 afiliatu gehiago izan dira (% 3,4) eta industrian 274 (% 3,1). Eraikuntzak 64 enplegu galdu ditu (-% 0,7) eta lehen sektoreak 26 enplegu (-% 11,2).

Nabarmentzekoak dira, bereziki, Merkataritza, Osasunean, Hezkuntzan, Garraioa eta biltegiaritzeetan eta Ostalaritza izandako hazkunde absolutuak (1.399, 1.064, 849, 766 eta 588 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak -% 1,1eko jaitsiera islatu du aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztiek behera egin dute. Sevillak izan du atzerakadarik handiena (-% 1,3) eta Bartzelonak txikiena (-% 0,9).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, -% 0,9 jaitsi da. Gasteizen -% 0,5 jaitsi da, Donostian -% 1,9 eta Iruñean -% 0,2.

EAEEn, oro har, afiliatuak % 0,9 jaitsi dira hilabete artean. Lurraldeei dagokienez, denetan egin du behera afiliazioak. Arabak -% 0,4 egin du behera, Bizkaiak -% 0,9 eta Gipuzkoak -% 1,1.

## Erregistratutako kontratuak

Urtarrilean 11.176 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 2,6 eta 295 kontratu gutxiago. Urtetik urtera murriztu egin dira gizonen eta emakumeen egindako kontratuak: 262 eta 33 gutxiago, hurrenez hurren.

Gazteenei egindako kontratuak igo dira, % 0,5 gehiago, hau da, 13 kontratu gehiago. Bestalde, behera egin dute 25-44 urte arteko taldean % 3,3 (192 gutxiago) eta 45 urteko eta gehiagoko taldean % 3,7 (116 gutxiago). Erregistratutako kontratuen erdia dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.579 kontratu), % 23,0, berriz, gazteenei (2.566) eta gainerako % 27,1a, ordea, 45 urte eta gehiagokoei (3.031).

Industrian soilik izan dute gorakada kontratuak (% 11,4, hau da, 57 gehiago). Jaitsi egin dira Eraikuntza (-% 4,1 eta 16 gutxiago),

### Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko  $\Delta$

Urtarrila	196.814 pertsona
	% 1,1 ▼
Zerbitzuak	% 1,2 ▼
Eraikuntza	% 0,2 ▲
Industria	% 0,0 =
Lehen sektorea	% 13,4 ▼

### Benchmarkina

Hilabete arteko  $\Delta$

Bilbo	% 1,1 ▼
G-5	% 1,1 ▼
G-3	% 0,9 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

### Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa  $\Delta$

Urtarrila	11.176 pertsona
	% 2,6 ▼
Emakumeak	% 0,5 ▼
Gizonak	% 5,1 ▼
Lehen sektorea	% 28,6 ▼
Industria	% 11,4 ▲
Eraikuntza	% 4,1 ▼
Zerbitzuak	% 3,2 ▼
Kontratututako pertsonak	% 5,5 ▼

Zerbitzuetan (–% 3,2 eta 334 gutxiago) eta Lehen Sektorean (–% 28,6 eta 2 gutxiago).

Urtarrileko aldi baterako kontratuak kontratu guztien % 75,2 izan dira. 8.086 pertsona kontratatu dira eta % 55,1 emakumeak dira. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,38 kontratu.

## MERKATARITZA

### Txikizkako merkataritza

Bizkaiko Txikizkako merkataritzaren sektoreak urte arteko % 3,8ko hazkundera izan du salmentetan laugarren hiru hilekoan. Erregai-zerbitzuguneetan automobilgintzarako egindako erregaiaren salmenta kontuan izan gabe, salmentek % 4,0 egin dute gora.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, % 0,7 handitu dira salmentak.

Sektoreen arabera, urtetik urtera behera egin dute automoziorako erregaien salmentak (–% 2,0), eta gora egin dute elikagaien salmentak eta gainerako produktuenak (% 4,4 eta % 3,7, hurrenez hurren).

Bizkaiko txikizkako merkataritzako sektoreko landunak –% 0,4 murriztu dira 2024ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

EAEko salmentek gora egin dute % 4,0. Lurraldeka, Gipuzkoan (% 4,5) egin dute gora, eta Araban (% 3,8).

**2024. urteko balantzea.** Urte osoan, txikizkako merkataritzako salmentek % 2,6ko gorakada izan dute aurreko urtearekin alderatuta eta % 2,8ko gorakada zerbitzuguneak kenduta.

Automobilgintzarako erregaien salmentek behera egin dute (–% 2,5) eta gora egin dute elikagaien (% 3,3) eta gainerako produktuen salmentak (% 2,2).

Landunen kopurua % 0,5 igo da 2024. urtean.

Lurraldeen arabera, txikizkako salmentek urterik urte gora egin dute Gipuzkoan (% 3,5), eta Araban (% 2,7). EAEn, orokorrean, % 2,9 igo dira urtetik urtera.

### Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentek urtarrilean –% 0,3 egin dute behera urte batetik bestera, lan-egutegi homogeneoari dagokionez. Aurreko hilabetearekin alderatuta, % 0,6 igo dira salmentak.

Elikagaien salmentek –% 0,2 egin dute atzera 2024ko abenduarekin alderatuta, eta gainerako produktuen salmentek –% 0,4ko beherakada izan dute.

#### Txikizkako merkataritza Bizkaia

Urte artekoa Δ

IV. hiruhilekoa	122,8 adierazle orokorra
	% 3,8 ▲
- Elikadura	% 4,4 ▲
- Gainerako produktuak	% 3,7 ▲
- Ibilgailuetarako erregaia	% 2,0 ▼
Gasolina-zerbitzugunerik gabe	% 4,0 ▲
Landunak	% 0,4 ▼

#### Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa Δ

Urtarrila	103,3
Salmenta-indizea	% 0,3 ▼
- Elikadura	% 0,2 ▼
- Gainerako produktuak	% 0,4 ▼
Landunak	% 0,5 ▼

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko  $-0,5\%$  beherakada izan du.

Azalera handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute: Araban behera egin du  $-1,5\%$  eta Gipuzkoan  $-0,4\%$ . EAEn, orokorrean,  $-0,5\%$  egin dute gora.

## EKONOMIA

### Beste zerbitzu batzuen salmentak

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektoreko salmentak, urterik urte,  $3,4\%$  igo dira azken hiruhilekoan.

Azken urte honetan jarduera-adar guztiek egin dute gora: Garraioa eta biltegiatzea  $6,1\%$ , Ostalaritza  $2,7\%$ , Informazioa eta komunikazioak  $1,5\%$ , Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak  $2,7\%$  eta Administrazio-jarduerak  $2,8\%$ .

Landunak  $1,1\%$  ugaritu dira urtetik urtera.

Arabako beste zerbitzuen salmenten-indizeak  $3,2\%$  egin du gora, Gipuzkoan  $1,3\%$  eta EAEn  $2,7\%$ .

**2024. urteko balantzea.** Merkatuko beste zerbitzu batzuetako salmenta metatuek  $2,1\%$  egin dute gora 2024. urtean.

Jarduera-adar guztiek gora egin dute: Ostalaritzak izan du igoerarik handiena ( $3,2\%$ ), ondoren Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak ( $2,9\%$ ), Informazioa eta komunikazioak eta Garraioa eta biltegiatzea ( $1,7\%$ ), eta administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak ( $1,0\%$ ).

Landunen kopurua  $1,1\%$  hazi da 2024. urtean.

Arabako beste zerbitzuen salmenten-indizeak  $2,1\%$  egin du gora, Gipuzkoan  $1,0\%$  eta EAEn  $1,8\%$ .

### Etxebizitza

Bilboko etxebizitza berri libreen transakzioen metro karratuko batez besteko prezioa  $3.733,1$  eurokoa da, Eusko Jaurlaritzak urteko laugarren hiruhilekoari lotuta egin duen Etxebizitzen Salerosketaren Estatistikaren arabera. Horrek aurreko hiruhilekoan baino  $-8,0\%$  merkeagoa izatea dakar, eta urte arteko terminoetan ere  $-6,5\%$  beherakada izan du.

Erabilitako etxebizitzaren metro koadroko batez besteko prezioak  $4,7\%$  egin du gora 2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, eta  $3.144,1$  eurokoa da. Urte arteko aldakuntza positiboa da,  $6,7\%$ koa.

#### Merkatuko zerbitzuen salmentak. Bizkaia

Urte artekoa  $\Delta$

IV. hiruhilekoa 132,0

Salmenta-indizea  $3,4\%$   $\blacktriangle$

Landunak  $1,1\%$   $\blacktriangle$

#### Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa

IV. hiruhilekoa 3.733,09 €/m<sup>2</sup>

$\Delta$  Hiruhileko artekoa  $8,0\%$   $\blacktriangledown$

Urte artekoa  $\Delta$   $6,5\%$   $\blacktriangledown$

Batez besteko prezioa guztira 297.424 €

#### Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa

IV. hiruhilekoa 3.144,07 €/m<sup>2</sup>

$\Delta$  Hiruhileko artekoa  $4,7\%$   $\blacktriangle$

Urte artekoa  $\Delta$   $6,7\%$   $\blacktriangle$

Batez besteko prezioa guztira 246.462 €

## TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduetan 120.365 ostatu-gau erregistratu dira urtarrilean, hau da, % 5,2ko hazkundera egon da urtetik urtera (5.956 ostatu-gau gehiago).

Bidaiarien sarrerak % 5,8 igo dira. Estatutik etorritako bidaiarien kopurua (sarrera guztien % 66,4) % 6,1 igo da hilabete honetan hirian. Atzeritarrak % 5,1 areagotu dira urtetik urtera.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaiariei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugarienak (% 25,2), gero EAEkoak (% 19,4), Kataluniakoak (% 11,8) eta Andaluziakoak (% 6,8). Atzerriko bidaiariei dagokienez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugarienak: Frantzia (% 15,0), Alemania (% 8,3), Italia (% 8,1) eta ABEE (% 6,5).

Behera egin du batez besteko egonaldia eta bidaiari bakoitzeko 1,82 ostatu-gau izan dira.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 40,9 eurokoak dira eta -% 8,0 murriztu dira

Bestalde, hoteletako batez besteko tarifak 80,8 eurokoak dira (-% 7,0).

**Apartamentu turistikoaren establezimenduek** 7.503 sarrera erregistratu dituzte guztira urtarrilean, hau da, % 87,6 gehiago eta 16.200 gaualdi gehiago, eta 2024ko urtarrilean baino % 156,2 gehiago.

**Oro har**, hotelak eta apartamentu turistikoak batuta, urtarrilean 73.709 sarrera eta 136.565 gaualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera +% 10,7 eta +% 13,1, hurrenez hurren).

**Benchmarkina.** Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 5,8 hazi da eta. Langabeziak gora egin du Gasteizen (% 8,9) eta Donostian (% 9,8). Iruñean -% 10,5 egin du behera.

EAE osoan beherakada % 7,0koa izan da aurreko urteko urtarilaren aldean. Lurraldean arabera, ostatu gauek gora egin dute Bizkaian (% 5,7), Gipuzkoan (% 7,2) eta Araban (% 9,8).

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 3,9ko gorakada izan dute. Valentzian izan ezik (-% 2,7), ostatu-gauek gora egin dute taldeko hiriburu guztietan. Madrilen izan da gorakadarik handiena: % 7,8.

### Hotel-gauak

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Urtarrila</b>	120.365 ostatu-gau
	% 5,2 $\blacktriangle$
Hiru izar eta gehiagoko hotelak	% 2,5 $\blacktriangle$
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 15,1 $\blacktriangle$

### Bidaiarien sarrera

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Urtarrila</b>	66.206 sarrera
	% 5,8 $\blacktriangle$
Nazionalak	% 6,1 $\blacktriangle$
Atzeritarrak	% 5,1 $\blacktriangle$

### Batez besteko egonaldia

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Urtarrila</b>	1,82 ostatu-gau/bidaiari
	% 0,5 $\blacktriangledown$

### Sektorearen errentagarritasun-adierazleak

Urte artekoa  $\Delta$

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 7,0 $\blacktriangledown$
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 8,0 $\blacktriangledown$

### Apartamentu turistikoak

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Urtarrila</b>	
<b>Ostatu-gauak</b>	16.200 ostatu-gau
	% 156,2 $\blacktriangle$
<b>Bidaiarien sarrerak</b>	7.503 sarrera
	% 87,6 $\blacktriangle$

Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitatez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalean eta ohikoan aldi baterako ostatu ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena. (Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

### Benchmarkina

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	% 5,2 $\blacktriangle$
<b>G-5</b>	% 3,9 $\blacktriangle$
<b>G-3</b>	% 5,8 $\blacktriangle$

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

### Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 365.944 bidaiari izan ditu urtarrilean (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino  $-3,8\%$  eta 14.387 bidaiari gutxiago. (Urte arteko lehen jaitsiera 2021eko martxotik).

Hegaldi nazionaletako bidaiarien kopuruak behera egin du, izan ere, 16.986 bidaiari gutxiago izan dira ( $-6,8\%$ ); hala ere, nazioarteko bidaiarien kopuruak gora egin du  $2,3\%$  eta 2.922 bidaiari gehiago izan dira.

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 2.974 izan dira ( $-8,7\%$ ), eta garraiatutako salgaiak igo dira ( $17,6\%$ ).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiri nagusiei dagokienez (G-5), urtetik urtera  $7,1\%$ eko igoera kontabilizatu da. Zaragozan izan ezik ( $-3,1\%$ ), taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Madrilen izan da hazkunderik nabarmenena ( $8,4\%$ ) eta Bartzelonan baxuena ( $5,4\%$ ).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira,  $8,0\%$  handitu da, urtetik urtera. Langabeziak gora egin du Gasteizen ( $36,3\%$ ) eta Iruñean ( $3,7\%$ ). Donostian behera egin du ( $-4,0\%$ ).

### Portuko garraioa

Bilboko Portuak 2,4 milioi tonako trafikoa izan zuen urtarrilean, hau da,  $-20,2\%$  gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan urtarrilean kudeatutako salgaien  $62\%$  izan da, eta urte arteko  $-30,7\%$ ko jaitsiera izan du. Solteko gaien trafikoa  $14,5\%$  igo da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrena  $2,8\%$ .

Urtarrilean ez da itsas-bidaietako jarduerarik erregistratu.

#### Aireko garraioa

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Urtarrila</b>	365.944 bidaiari
	$3,8\%$ ▼
Nazionalak	$6,8\%$ ▼
Nazioartekoak	$2,3\%$ ▲
<b>Salgaiak (kg)</b>	$17,6\%$ ▲
<b>Hegaldiak</b>	$8,7\%$ ▼

#### Benchmarkina

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	$3,8\%$ ▼
<b>G-5</b>	$7,1\%$ ▲
<b>G-3</b>	$8,0\%$ ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

#### Itsas garraioa Abendua

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Portuko trafikoa</b>	2,4 milioi tona
	$20,2\%$ ▼
<b>Bidaiariak garraiatzea</b>	4.367 bidaiari
	▲
<b>Itsas bidaiariak (kop.)</b>	0 itsas bidaiari
	=

## Hiri- eta metropoli-garraioa

2024. urtean Bilboko hiri- eta metropoli-garraioetako erabiltzaileen kopurua (Metro Bilbao, Bilbobus eta EuskoTran), guztira, 125,9 milioi bidaiarira heldu zen; beraz, % 5,2 igo da aurreko urtearekin alderatuta.

Urteko datu horrek esan nahi du 6.172.481 bidaiarirekin gainditu dela aurreko urteko datua.

**Metro Bilbaok** bidaiari guztien (100,4 milioi) % 80 jaso ditu, hau da, % 8,6ko igoera izan du urtetik urtera.

**Bilbobusek**, bidaiarien % 17,3 hartzen dituenak (21,8 milioi), -% 9,6ko beherakada izan du (grebak eraginda).

**EuskoTranen**, bidaiarien kopurua % 15,7 handitu da, eta, guztira, 3,8 milioi bidaiari garraiatu ditu.

### Hiri- eta metropoli-garraioa

Urte artekoa  $\Delta$

<b>2024</b>	125,9 milioi bidaiari
	% 5,2 ▲
<b>Bilbobus</b>	% 9,6 ▼
<b>Metro Bilbao</b>	% 8,6 ▲
<b>Eusko Tran</b>	% 15,7 ▲



## ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
<b>Lan-merkatua</b>			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.533	2,2*	2025eko urtarrila
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	196.814	-1,1*	2025eko urtarrila
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	11.176	-2,6	2025eko urtarrila
Biztanleria aktiboa (milakotan)	182,1	3,1*	2024ko IV. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	160,9	-0,4*	2024ko IV. HH
Langabeak (milakotan)	21,2	41,3*	2024ko IV. HH
BAIko langabezia-tasa (%)	11,63	3,12 p.p.*	2024ko IV. HH
<b>Merkataritza</b>			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	117,1	-0,2*	2025eko urtarrila
Afiliatuak**	20.222	-3,0*	2025eko urtarrila
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	122,8	3,8	2024ko IV. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	103,3	-0,3	2025eko urtarrila
<b>Turismoa</b>			
Bidaia-erien sarrera	66.206	5,8	2025eko urtarrila
Ostatu-gauak	120.365	5,2	2025eko urtarrila
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia-eria)	1,82	-0,5	2025eko urtarrila
Hoteletako okupazio-maila (%)	41,6	1,2 p.p.	2025eko urtarrila
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	40,9	-8,0	2025eko urtarrila
<b>Ekonomia eta enpresa</b>			
Bizkaiko BPGd	104,5	1,6	2024ko III. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	94,7	1,9	2024ko abendua
Merkataritza-sozietate berriak	864	4,3	2024
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	132,0	3,4	2024ko IV. HH
Etxebizitza librearen batez besteko prezioa (€/m <sup>2</sup> )	3.733,09	-6,5	IV. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (€/m <sup>2</sup> )	3.144,07	6,7	IV. HH
<b>Garraioa</b>			
Bidaia-erien aire bidezko garraioa	365.944	-3,8	2025eko urtarrila
Hegaldiak	2.974	-8,7	2025eko urtarrila
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,4	-20,2	2025eko urtarrila

\* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. \*\* Bilboko enpresetan. \*\*\* Bizkaia-ri dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, ElNren, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, Axesorren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

## GRAFIKOAK


### Erregistratutako langabezia




### Afiliatuak




### Txikizkako merkataritza



### Aireportuko bidaiariak



### Portuko trafiko



### Saltoki handiak eta elikagaien kateak

